



LIBURUA

Zoriontasuna, literatura eta emakumeak



DANI BLANCO

LITERATURA ETA HARRIKOA INMA ERREA

INMA ERREA CLEIX IDAZLEA ETA
ITZULTZAILEA (IRUÑEA, 1960)

PAMIELA, 2003

ARITZ GALARRAGA

@aritzgalarraga

Brigita ez da Inma Errea, baina bada itzultzaile, emazte eta ama, liburuak zorion iturritzat dituen fikziozko pertsonaia. Orriotan argitu nahi duen afera, literatura eta emakumeen esperientziak lotzen dituzten hari fin eta ia ikusezin horiek zertan dautzan, nolakoak diren, norantz doazen. Saiakera moduko bat egiten hasi da, hortaz, *work in progress*, zeinak autore jakin batzuen bitartez egiten duen aurrera: Virginia Wolf, Ángeles Mastretta, Danielle Steel, are Espainiako telebista kate bateko emakume aurkezle distiratsu plagiatzailea.

Eta azierto bat da, esango nuke, batetik, protagonista fikzionatu izana, edo gutxienez tarte pixka bat utzi izana idazlearen eta testuaren artean; hartara, liburuiko pasarterik zalantzaragarrak ere

–“iruzurra iruditzen baitzaio ama, edo gutxienez, emakume izan gabe, emakume batek ama gisa izan ditzakeen sentimenduak azaldu nahi izatea”– egiantzeko suerta litezke, autorearen aurkako bazka izan beharrean. Eta azierto bat da, bestetik, aurretik literatura eta emakumeen esperientziak lotu izan dituzten testuen gainean ibiltzen dugulako bidea.

Total, erakargarri egin zaidala Brigita: zalantza egiten du, kontraesanetan erortzen da, ez dakiela dio; gauza arraroa gaur egunean, eta benetan eskergarria. Kontu zorionez desfasatuak irakurriko dizkiogu –“badaki emakume askok muzin egiten diola informatikari”– eta argitu, segur aski, ezer argitu badaiteke behintzat, ez du gauza handirik argitzen. Eztabaidagaiak mahaigaineratzen ditu,

ordea. Eta ez da gutxi. “Batuetan asmatzen zuela iruditzen zitzaion, bestetan, berriz, oker zebilela”. Agian gaur egunetik gauza berri handirik ez dakar –nahiz inoiz ez dagoen soberan kontzeptu oinarritzkoenak ere berriz gogoratzea–, baina, zalantzarik ez, 2003koa izanik, aitzindari gisa badu bere balioa. Orain, eta zorionez, pentsamenduaz eta emakumez ari diren bildumak (Lisipe, Eskafandra) gehixeago ugaritu diren honetan.

“Senak zorionaren kontu horrek literaturarekin, baita emakumezkoen literaturarekin ere, zerikusia duela agintzen dio”. Zoriona, literatura eta emakumeak, beraz, iruzkin honen goiburua ere –iragarki matxirulo baten leloa dirudien arren–. Errearen saiakerak harrapatzen dituen gakoak. ●